

Irainik ez, kito!
¡El insultar se va a acabar!



Eskola Kirolean errespetuaren aldeko kanpaina
Campaña por el respeto en el Deporte Escolar

Foru Aldundiak "Irainik ez, kito!" kanpaina aurkeztu du harmailetako errespetu faltan aurka

"Klik sozial bat" eragin nahi du eta normaltzat jotzen ditugun jarrerak baztertu, "indarkeriaren lehen hazia baitira"

Kartelak, publizitatea, ekintzak kirolariekin, dekalogo bat eta protokolo bat, zeinak partida bertan behara uztea jasotzen baitu proposatutako neurrien artean

Kolektiboei, kirol eragileei eta gizarte osoari irekitako kanpaina bat, ekintza antolatuetan edo bat-batekoetan parte hartzen denerako

Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 18a. Arabako Foru Aldundiak kirol federazioen, klubuen eta kirolarien aurrean aurkeztu du gaur "Irainik ez, kito!" kanpaina, harmailetako irainen eta errespetu faltan aurkakoa. Ramiro González diputatu nagusiak eta Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak egin dute aurkezpena.

Helburua da arlo guztietatik, hala nola politikatik, administrazioetik, kirol egituratik, gizartetik eta hedabideetatik – esan du Diputatu Nagusiak – indarkeriaren lehen "txinparta", harmailetatik datorrena, desnaturalizatzen laguntzea, batez ere adingabeek egiten duten eskola kirolean.

Foru aldundia uste honetatik abiatzen da: indarkeria ez da borroka batekin hasten, baizik eta normalizatzen ditugunean guraso batek harmailetatik irainak botatzea edo errespetu falta adieraztea 20 urteko arbitro gazte bati edo kontrako taldeko aurkari adingabe bati, edo, are gutxiago, entrenatzaile gazte bati seme edo alaba bati minutu "nahikorik" ez emateagatik.

Kanpaina horren helburua, beraz, irain eta errespetu falta oro desagerrarazten laguntzea da, eta, horretarako, ekitaldiaren protagonistak, jokalariak, epaileak edo, are gehiago, gizartea arauak errespetatzen dituen ikusleak, "gehienak errespetutsuak", behin betiko ahalduntzea, iraintzen ez duen gehiengo gisa indartzeko eta guztien artean irainak eta errespetu faltak harmailetatik behin betiko baztertzeko.

Kultura eta Kiroleko foru diputatuak, bestalde, esan du kanpainaren asmoa "ez dela zigorrak jartzea, ez da partidak bertan behera uztea edo galdutzat ematea, nahiz eta ondorioak azkenean horiek izan daitezkeen portaerek bere horretan jarraitzen badute. Helburu nagusia jarrera horiek desagertaraztea da, eta jende guztiak bere burua helburu horretan inplikaturik ikustea, klik sozial bat eginez".

Federazioen bidez kirol instalazio guztietan banatuko diren kartelak eta flyerrak eta komunikabideetako publizitatea ez ezik, kanpainak portaera dekalogo bat eta irainen kasuan jarduteko protokolo bat ere baditu, baita kanpainan parte hartzen duten kirol eragileekin egindako zenbait ekintza, sare sozialetako bideoak eta bestelako batzuk ere.

Kanpaina "bizia eta irekia". Ekintza proposamen berrietara irekia, bat-batekoetara barne, eta bizia, denboran eutsiko zaiolako, denboraldia amaitzen denean ebaluazio bat egin ostean.

Honekin batera doa dekalogo, protokoloa eta ekintzak jasotzen dituen kanpainaren dosierra.

KANPAINA

Arabako lurraldea aitzindaria da jarduera fisikoaren eta kirol jardueraren sustapenean, eredu da kirol ekipamenduetan eta kirol jardueraren plangintzaren eta programazioaren diseinuan, eta erreferentzia da guztiontzako kirolaren filosofia ulertzeko eta gauzatzeko duen moduagatik. Kirola DNAn daramate arabarrek.

Jarduera fisikoak eta kirolak arlo fisikoa, soziala, mentala eta emozionala behar bezala garatzen laguntzen dute, eta tresna eraginkorra da bizi ohitura osasungarriak eta askotariko balioak irakasteko, hala nola errespetua, berdintasuna, konpromisoa, ahalegina, hobetzeko grina eta talde lana.

Kirola sustatzeko baliabideak erabiltzea ez da gastu bat, inbertsiorik onenetako bat da.

Gero eta gehiago dira kirola egiten duten arabarrak. Errealitate horren erakusgarri ona da federatutako pertsonen kopurua eta, batez ere, federatu gabeena, pixkanaka baina etengabe igotzen ari dela. Igoera horren ondorioz, kirol instalazioen eskariak gora egin du, batez ere gure hiriburuan.

Eskola kirola Arabako Foru Aldundiaren eskumena da, eta eskola kirolaren alde lan egitea gure neska-mutilen garapen fisiko eta emozionalaren alde lan egitea da, eta helduaroan jarduera fisikoa eta kirola egiteari uzten diotenen tasa murriztea ere bai. Batez ere neskena.

Nola eragiten du kirolak balioen transmisioan?

Kirolaren oso zale den pertsona orok, kirola egin eta bizi duenak, ondo finkatuta ditu buruan **kirol balioak**, hala nola konpromisoa, onarpena eta zintzotasuna. Horiek izan ohi dira **kirola egiten dutenen balio ohikoenak**.

Banaka zein taldeka, lehiatzeko xede eta helburu komunak ezartzen dira, eta ibilbide hori ez da inoiz bakarka egiten.

Beti egongo da errespetatu beharreko taldekideren bat, edo entrenatzaile bat, kirol edo lehia interesen gaineratik baitaude balioak, hezkuntza eta tolerantzia.

Zalantzarik gabe, **enpatia, altruismoa eta zintzotasuna** kontzeptu gakoak dira funtsezko balio hori transmititzeko, eta, gainera, garrantzi berezia hartzen du haurtzaroko adin horietan.

Jokabide onak beti presente egon behar du kirol entrenamendu, partida eta ekitaldietan: **begirunezko jarrera izatea arbitroarekin**, bere erabakietan akatsen bat egin dezakeenean.

Kirola arma gogorra da, eta gizabanakoa motibatzen, aurrera jarrai dezan adoretzeko eta hobetzeko grina sorrarazteko gai da. Ilusioak pizteko, balioak transmititzeko eta norberaren aurrerapenaren eta bilakaeraren kontzientzia sortzeko gai da.

Horretantxe datza gaitutako **kirol teknikarien** lanaren garrantziaren zati handi bat, ahal den neurrian saihestu baitezake horrelako kontrabalioak agertzea.

Kirolak sustatzen dituen balio nagusiak

Kirolaren eremuan, bizitzan gertatzen den bezala, kontzientzia, mentalitatea eta jokabidea norberaren mende daude. Zuk zeuk erabakitzen duzu izatea, eta zeuk bakarrik erabakitzen duzu amore ematea edo jarraitzea eta zailtasunei aurre egitea.

Hauk dira kirolaren **balio positibo nagusietako** batzuk:

- **Konpromisoa:** bai maila indibidualean bai kolektiboan, beti dago helburu edo xede komun bat borroka egiteko.
- **Lankidetza eta kooperazioa:** lankideen arteko kooperazioa funtsezkoa da ezarritako helburuak modu optimoan lortzeko.
- **Errespetua:** errespetua joko garbi eta osasuntsu baten funtsa da. Kirolaren balio garrantzitsuenetako bat da, eta, gainera, gizarte jokabide ororen gakoa eta oinarria da.
- **Ahalegina eta hobetzeko grina:** kirolaren lehia izaerak ahalegina, lan gogorra eta norberaren hobetzeko grina sustatzen ditu.
- **Jarraikitasuna:** aurrera jarraitzea eta irautea dira arrakastaren funtsezko osagaiak.
- **Buru-belarri aritzea eta arduraz jokatzeko:** buru-belarri aritzea, sakrifizioa, pasioa eta arduraz jokatzeko bat datoz norberaren gogobetetzearekin eta jardunarekin.
- **Eskakizuna:** helburu errealistak eta ondo zehaztuak edukitzeak, eskakizun, konpromiso eta hobetzeko grina dosiekin bateratuta, arrakasta ekarriko dizu, arrakasta norberaren gozamena ere badela ulertuta, emaitzetatik harago.
- **Motibazioa eta konfiantza:** bere mugez jabetzen den baina ilusio handiak eta erronka argiak dituen pertsona batek lorpen handiak egin ditzake.
- **Apaltasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna:** bai kirolean, bai bizitzan, funtsezkoa da apala izatea eta gainerakoen ahaleginak baloratzea.
- **Autoezagutza:** Funtsezkoa da autokritika praktikak egitea eta norbera baloratzea, hobetzeko.

ZERGATIK ETA ZERTARAKO KANPAINA HAU?

Kirolaren balioen aurkako jokabideak normalizatzea

Haurren garapenerako onura horiek guztiak zapuztu egiten dira helduen portaera desegokiaren ondorioz.

Premisa honetatik abiatzen gara: indarkeria ez da borroka batekin hasten, gurasoek edo edozein helduk arbitro gazte bati harmailatik botatako iraina edo errespetu falta normalizatzen dugunean hasten da, edo kontrako taldeko aurkari adingabe bati botatakoa, edo entrenatzaile gazte bati, seme edo alaba bati minutu "nahikorik" ez emateagatik edo partidaren beste edozein inguruabarrengatik.

Beraz, helburua ez da soilik ageriko indarkeria nabarmenena gaitzestea gertatzen den unean, eta lehendik dauden segurtasun mekanismoen bidez haren aurka jardutea (hala egin behar da, jakina).

Helburua da **indarkeriaren lehen "txinparta", harmailetatik datorrena, desnaturalizatzen** laguntzea, alderdi guztietatik: politika, administrazioa, kirol egitura, gizartea eta hedabideak.

Izan ere, errespetu faltaren "naturalizazio" hori desagerrarazteko premiari buruz inoiz hausnartzen ez badugu, azkenean belaunaldi batetik bestera eta adingabeen kiroletik helduen kirolera modu geldiezinean igarotzen da.

Beraz, jolasetik, **normala ez dena** baina gizartean agian normalizatu duguna **alde batera uzten** laguntzea da kontua. Irainen eta errespetu falten bertsio guztiak desagerrarazten laguntzea.

Jakina, ezin gara norbanakoen askatasunen esparruan sartu, eta, beraz, ez dugu pertsonen aurka jardun nahi, baina bai ekitaldiaren protagonistak, jokalaria, kirol egitura eta arbitroak (baita errespeturik ezik eta irainik erabiltzen ez duten ikusleak ere), **iraintzen ez duen gehiengo gisa indartzeko ahaldunduta senti daitezela.**

Eta, kanpainaren bidez kirol eragile guztiok hartzen dugun konpromisoaren bidez, jarrera batzuk geldiarazi, erreklamatu, "lotsarazi" ahal izatea, eta, horrekin batera, jarrera onak indartu, saritu eta txalotu ahal izatea, gogoraraziz **denak zer ikustera eta zertaz goatzera etorri diren: ekitaldia bera**, kirol ekitaldi bat, eta are gehiago adin jakin batzuetan.

Kanpaina honen asmoa, beraz, ez da "zigortzea" edo "zehatzea". Kanpainaren helburua ez da partidak bertan behera uztea edo galdutzat ematea, nahiz eta, azkenean, ondorioak horiek izan daitezkeen portaerek irauten badute. **Helburua da jarrera horiek desagerraraztea eta mundu guztia inplikatzeko helburu horretan parte hartzen.**

Beraz, horren bidez **indarkeriaren lehen hazia behin betiko alboratuko duen "klik" sozial bat egiten** lagunduko duen kanpaina da.

Izan ere, kanpaina bera, kartela, eslogana, ekintzak edo azken finean partidak bertan behera uzteko aukera bera baino askoz ere garrantzitsuagoa da guztiok dugun asmoa gizarteratzea, hau da, harmailetatik irainak eta errespetu faltak desagerrarazteko asmoa.

Eskola kirolaren helburu publikoekin —zeinaren lehen printzipioa adingabeen ongizatea eta prestakuntza baita— % 100eko inplikazioa duten harmailak eraikitze asmoa.

Kanpaina helburu hori lortzeko "aitzakia" da.

Eta, horretarako, eskola kiroleko eragile guztiak behar dira, edo bertan sartuta daudenak, bozgorailu izan daitezzen.

Gainera, **kanpaina bizia eta irekia** da. Proposamen berrietara irekia, azken helburua partekatzen duten eta berez sor daitezkeen ekintzetara irekia. Bizia, denboran iraungo duelako.

Jakina denez, kirolaren funtsezko zutabeetako bat **joko garbia** da. Azken batean, kirol eta hezkuntza kanpaina honek ikusleen eta jokalarien jokabide desagokia saihesteko balioko du, eta kirolean **errespetuak** duen garrantzia azpimarratzeko, bai zelaiaren barruan, bai kanpoan.



Eskola Kirolean errespetuaren aldeko kanpaina ***Campaña por el respeto en el Deporte Escolar***

Dekalogo

Decálogo

Errespetatu entrenatzaileen eta kirolarien erabakiak, eta ez eskurik sartu haien lanean.	1	Respetar las decisiones de los entrenadores/as, deportistas y no intervengas en su trabajo.
Animatu kirolari guztiak, haien gaitasun eta trebetasun maila edozein izanda ere.	2	Anima a todos los y las deportistas, sin importar su nivel de competencia y habilidad.
Lagun egin eta goza dezazun nahi dugu. Ahal dela, ez egin oihu, eta aitortu taldeen zein kirolarien ahalegina.	3	Queremos que acompañes y disfrutes. Evita gritar y reconoce el esfuerzo tanto de equipos como de deportistas.
Errespetatu epaileak. Lan zaila da, baina funtsezkoa, eta errespetatzen badituzu, erraztu egiten diezu lan hori.	4	Respetar a los árbitros. Para ellos es complicado y, con tu respeto, se lo pones mas fácil.
Izan jarrera positiboa eta laguntzailea harmailetan eta parte hartzaileekin.	5	Manten una actitud positiva y colaboradora en las gradas y con los y las participantes.
Lagundu talde lana sustatzen. Nahi duten bakarra gozatzea eta dibertitzea da.	6	Ayuda a fomentar el trabajo en equipo. Solo quieren disfrutar y divertirse.
Ez kritikatu eta ez iritzirik eman arrazoirik gabe... animatu, besterik ez!	7	No critiques y no opines gratuitamente... ¡Sólo anima!
Kirolaren helburu nagusia dibertitzea eta ikastea da.	8	El objetivo principal del deporte escolar es divertirse y aprender.
Sustatu kirol legea, joko garbia eta ikusleen arteko errespetua.	9	Fomenta la deportividad, el juego limpio y el respeto entre el público.
Bultzatu ahalegintze, iraute eta norberaren hobekuntzan aurrera egiteko balioak.	10	Impulsa los valores de esfuerzo, perseverancia y superación personal.

IRAINEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Ekintza horiek topaketak arbitratzeaz arduratzen den pertsonak egin behar ditu, eta kolektibo hori animatu eta gonbidatu nahi dugu protokolo honetan parte hartzera.

Edozein arrazoi dela medio, arbitroak ezin badu, **zentroko edo instalazioko** ordezkariak, **babes ordezkariak (LOPIVI)** edo taldeetako entrenatzaileetako edozeinek erantzukizuna bere gain hartu ahal izango du.

- ✓ LEHEN IRAINA: PARTIDA GERATUKO DA UNE BATEZ, eta iraina bota duenari adieraziko zaio ez dezala berriz halakorik egin
- ✓ BIGARREN IRAINA: PARTIDA GERATUKO DA, ETA ARBITROAK bi taldeei OHARTARAZIKO DIE, HURRENGOAN, PARTIDA BERTAN BEHERA GERATUKO DELA
- ✓ HIRUGARREN IRAINA: PARTIDA BERTAN BEHERA GERATUKO DA ETA TALDEAK ALDAGELETARA JOANGO DIRA.

Aztertu egingo da foru araudian sartzea, baldin eta harmailetako pertsonaren baten erruz bigarren partida bat bertan behera uzten bada, partida 3-0 galdutzat jotzeko aukera (edo emaitza handiagoa, kopuru hori handitu bada).

EKINTZAK

- Aurkezpena prentsaurrekoan kirolariekin
- Publizitatea komunikabideetan
- Ekintzak kanpainan parte hartu duten gizarte eragileekin
- Bideoak eta sare sozialak
- Kartelak eta flyerrak kirol instalazioetan
- Protokoloa eta dekalogoak Eskola Kirolaren Foru Aginduan sartzea.
- Protokoloa, dekalogoak eta kanpaina eskola kiroleko parte hartzaile guztiei bidaltzea.
- Jarraipen bilerak
- Eskola kirolaren ikuskaritza jardueraren inplikazioa
- Harmailetako gertakariei buruzko hiru hilez behingo txostena, jakitera emango dena

Kanpainan zehar, beste ekintza batzuk aztertuko dira, federazioekin batera.

- Kanpainaren publizitatea egitea partiden hasieran edo atsedenaldietan, edo eguneroko jardueretan edo klubaren sare sozialetan.
- Partida aurreko hitzaldiak
- Arbitroekin lantegiak
- Gurasoen/semeei alabentzako partida
- Ekintza laburrak partida aurretik edo atsedenaldira (edo amaieran, txalo eginez harmailei)
- Entrenatzaile ikastaroak indartzea,
- Arbitroentzako ikastaro espezifikoak sortzea
- Familia ordezkariaren figura sortzea (zelaiko ordezkariarenaren osagarria)
- Inkesta azkarra arbitroei partida ondoren (baita beste estamentu batzuei ere, hala nola teknikariari eta kapitainari), aktari eransteko
- Bigarren faseko, "kiroltasun handieneko harmaila" edo "harmaila hobetu behar da" sariak sortzea.

Kirol edo gizarte eragileen ekintza independenteak

Klubei, federazioei, komunikabideei eta beste eragile batzuei eskatzen zaie kanpaina zabaltzea, egokitzen jotzen duten bezala eta modu independentean eta osagarrian, betiere azken helburu bera badute eta, ahal bada, mezu berarekin.

DENBORA HORIZONTEA:

Aurkezpena urtarrilean

2023-2024 denboraldiaren amaiera: ebaluazio pilotua

Hurrengo denboraldia: berrabiarazi, denboran irauteko

Guztion artean desagerrararaziko ditugu joko eremuetako irainak eta errespetu faltak.

Kirolarien zerrenda

IRAINIK EZ, KITO.

- Lourdes Oiarbide (Ciclista)
- Martín Fiz (Atleta)
- Joseba Beloki (Ex ciclista)
- Estíbaliz Martínez (Ex gimnasta)
- Jonathan Hernández Duke (Cesta Punta)
- Roberto Galdos (Jugador de parabádminton)
- Jon Idiakez (Piloto de motocross)
- Manu García (Futbolista)
- Sugoi Uriarte (Judoca)
- Mery Ortiz de Pinedo (Ex jugadora de fútbol)
- Nagore Martín (Pelotari de pala)
- Leire Garai (Pelotari)
- Maite Ortiz de Mendivil (Cesta Punta)
- Julen del Río (Cesta Punta)
- Salma Solaun (Gimnasia Rítmica)
- Teresa Gorospe (Gimnasia Rítmica)
- Unai Baigorri (Gimnasia artística)
- Urko Herrán (Triatleta)
- Arrate Mintegui (Triatleta)
- Txell Alarcón (Jugadora del Araski)
- Maider Castellano (Jugadora del Araski)
- Eneko Pou (Escalador)
- Mireia Vizuetxe (Kárate)
- Blanca Lacambra (Ex atleta)
- Dina Abouzeid (Entrenadora badminton)
- Patxi Peula (Patinaje velocidad)
- Majida Maayouf (Atleta)

Irainik ez, kito!

¡El insultar se va a acabar!



Eskola Kirolean errespetuaren aldeko kanpaina

Campaña por el respeto en el Deporte Escolar

Dekalogo

Decálogo

Errespetatu entrenatzaileen eta kirolarien erabakiak, eta ez eskurik sartu haien lanean.	1	Respeto las decisiones de los entrenadores/as, deportistas y no intervengas en su trabajo.
Animatu kirolari guztiak, haien gaitasun eta trebetasun maila edozein izanda ere.	2	Anima a todos los y las deportistas, sin importar su nivel de competencia y habilidad.
Lagun egin eta goza dezazun nahi dugu. Ahal dela, ez egin oihu, eta aitortu taldeen zein kirolarien ahalegina.	3	Queremos que acompañes y disfrutes. Evita gritar y reconoce el esfuerzo tanto de equipos como de deportistas.
Errespetatu epaileak. Lan zaila da, baina funtsezkoa, eta errespetatzen badituzu, erraztu egiten diezu lan hori.	4	Respeto a los árbitros. Para ellos es complicado y, con tu respeto, se lo pones mas fácil.
Izan jarrera positiboa eta laguntzailea harmailetan eta parte hartzaileekin.	5	Manten una actitud positiva y colaboradora en las gradas y con los y las participantes.
Lagundu talde lana sustatzen. Nahi duten bakarra gozatzea eta dibertitzea da.	6	Ayuda a fomentar el trabajo en equipo. Solo quieren disfrutar y divertirse.
Ez kritikatu eta ez iritzirik eman arrazoirik gabe... Animatu, besterik ez!	7	No critiques y no opines gratuitamente... ¡Sólo anima!
Kirolaren helburu nagusia dibertitzea eta ikastea da.	8	El objetivo principal del deporte escolar es divertirse y aprender.
Sustatu kirol legea, joko garbia eta ikusleen arteko errespetua.	9	Fomenta la deportividad, el juego limpio y el respeto entre el público.
Bultzatu ahalegintze, iraite eta norberaren hobekuntzan aurrera egiteko balioak.	10	Impulsa los valores de esfuerzo, perseverancia y superación personal.